


LAN
ISTRIPUEN
BIKTIMAK
ARTATZEKO
GIDALIBURUA

GUÍA
DE ATENCIÓN
A LAS VÍCTIMAS
DE ACCIDENTES
DE TRABAJO



LAN ISTRIPUEN AURREKO GOMENDIOAK ENPRESENTZAT

1. PLANIFIKATU GOMENDATUTAKO EKINTZAK
2. ISTRIPU BATEN ONDOREN-ONDORENGO EKINTZAK:

LAN ISTRIPUEN PRESTAZIOAK

LAN ISTRIPU BATEN AURREAN ZEIN PRESTAZIO ESTALTZEN DITUZTE
MUTUEK?

ZER BARNE HARTZEN DU OSASUN LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK?

ZERTAN DATZA ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN PRESTAZIO
EKONOMIKOA?

ZER DIRA ONDORIOENGATIKO PRESTAZIOAK?

ZEINTZUK DIRA EZINTASUN IRAUNKORRARENGATIKO PRESTAZIOAK?

ZEINTZUK DIRA HERIOTZAGATIKO PRESTAZIOAK?

ZER DIRA GIZARTE LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK?

ZEINTZUK DIRA ISTRIPU BATEN ONDOREN ABIAN JARTZEN DIREN MEKANISMOAK?

RTEKOEK ISTRIPUAREN ONDOREN DITUZTEN BESTELAKO
ESKUBIDEAK?



RECOMENDACIONES PARA LA EMPRESA ANTE UN ACCIDENTE DE TRABAJO

1. ACTUACIONES RECOMENDADAS A PLANIFICAR
2. ACTUACIONES INMEDIATAS TRAS UN ACCIDENTE

PRESTACIONES DE ACCIDENTE DE TRABAJO

¿ANTE UN ACCIDENTE DE TRABAJO QUÉ PRESTACIONES SATISFACEN
LAS MUTUAS?

¿QUE INCLUYE LA PRESTACIÓN DE ASISTENCIA SANITARIA?

¿EN QUÉ CONSISTE LA PRESTACIÓN ECONÓMICA DE INCAPACIDAD
TEMPORAL?

¿QUÉ SON LAS PRESTACIONES POR SECUELAS?

¿CÚALES SON LAS PRESTACIONES POR INCAPACIDAD PERMANENTE?

¿CÚALES SON LAS PRESTACIONES POR FALLECIMIENTO?

¿QUÉ SON PRESTACIONES DE ASISTENCIA SOCIAL?

¿CÚALES SON LOS MECANISMOS QUE SE DESPLIEGAN TRAS UN ACCIDENTE?

¿QUÉ OTROS DERECHOS TIENE EL ACCIDENTADO O SUS LOS
FAMILIARES TRAS UN ACCIDENTE?

LAN ISTRIPUEN AURREKO GOMENDIOAK ENPRESENTZAT

- ||| **Ez hartu bat-bateko erabakiak.** Lan-istripuen kasuetarako jarduketa-eredua planifikatuta edukitzea gomendatzen da.
- ||| **Egon lasai eta jokatu modu antolatuan.** Kasu hauetarako Arduradun-koordinatzailea izendatzea gomendatzen da.
- ||| **Jarraitu sen onari.**

1. PLANIFIKATU GOMENDATUTAKO EKINTZAK

Enpresa jarduketa-protokolo bat lantzen saiatuko da, eta horretan honako hauek aurreikusi beharko dira:

- ||| Jarduketa-protokoloa abian jartzeaz arduratutako Arduradun-koordinatzailea izendatzeko modua.
- ||| Hala badagokio (langile kopuruaren eta antolaketaren beraren arabera), lan-istripuaren ondoren-ondorengo jarduketak kudeatzeaz arduratutako lantaldea egituratzea:

- *Pertsona gutxik osatuko dute taldea (Arduradun-koordinatzailea eta beste bizpahiru pertsona), gorago adierazitakoaren kaltetan gabe.*

- *Langileen ezaugarri pertsonalen eta lanbide-gaitasunen arabera egingo da izendapena, eta baita lan-antolamenduaren ezaugarrien eta lan-istripuaren baldintzen arabera ere (noiz, non, zergatik).*

- ||| Arduradun-koordinatzaileak bete beharreko eginkizunen definizioa eta, hala badagokio, lantaldeko langileak.

- **Arduradun-koordinatzaileak, besteak beste, honako eginkizun hauek izango ditu:**

1. *Jarduketa-protokoloa abian jarri.*
2. *Balego, lantaldea bildu.*
3. *Istripua izan duena eta bere ahaideak artatu (prozedura eta jarraibideen arabera).*
4. *Zuzendaritzari, langileei edota beren ordezkariari jakinarazi (prozedura eta jarraibideen arabera).*
5. *Lan-istripua ikertu.*
6. *Asistentzia-parte egin, Mutua edo Erakunde Kudeatzailea lan-istripuari dagozkion osasun- eta diru-prestazioak zehazten has dadin.*

- ||| Istripua izan duena eta bere ahaideak artatzeko prozedura edo jarraibideak, zeinetan senitartekoei helarazi beharreko lehenengo jakinarazpena jasoko baita. Senitartekoei honako hauek jakinaraziko zaizkie:

1. *Gertakaria.*
2. *Istripua izan duen senitartekoa zein Osasun Zentrora eraman duten.*
3. *Osasun-laguntzaz eta lan-istripua izapidetzeaz arduratuko den Mutua edo Erakunde Kudeatzailearen izena.*

2. ISTRIPU BATEN ONDOREN-ONDORENGO EKINTZAK:

Lan-istripua gertatu ondoren, Arduradun-koordinatzaileak, dagozkion eginkizunak betez, jarduketa-protokoloa abian jarriko du behar bezalako arduraz, lasaitasunez eta azkartasunez.



RECOMENDACIONES PARA LA EMPRESA ANTE UN ACCIDENTE DE TRABAJO

III **No improvisar.** Se recomienda planificar una actuación para los casos de accidente de trabajo.

III **Mantener la calma y el orden.** Se recomienda designar un Responsable-coordinador para estos casos.

III **Actuar con sentido común.**

1. ACTUACIONES RECOMENDADAS A PLANIFICAR

La empresa procurará elaborar un protocolo de actuación, que prevea:

III La forma de designar a un Responsable-coordinador encargado de activar el protocolo de actuación.

III La configuración, en su caso (dependiendo del nº de trabajadores en plantilla y de su propia organización), de un equipo de trabajo encargado de gestionar las actuaciones inmediatamente posteriores al accidente de trabajo:

• El equipo estará compuesto, sin perjuicio de lo anteriormente indicado, por un número reducido de personas (el Responsable-coordinador y no más de dos o tres personas).

• La designación se realizará en función de las características personales y competencias profesionales de los empleados así como de las características organizativas del trabajo y las circunstancias del accidente de trabajo (tiempo, lugar, causa).

III La definición de las funciones específicas a realizar por el Responsable-coordinador y, en su caso, el personal del equipo de trabajo.

• **Entre las funciones del Responsable-coordinador se encuentran:**

1. Activar el protocolo de actuación.

2. Reunir al equipo de trabajo, si lo hubiera.

3. Atender al accidentado y a sus familiares. (según procedimiento o instrucciones)

4. Informar a la Dirección, los empleados y/o sus representantes (según procedimiento o instrucciones)

5. Investigar el accidente de trabajo.

6. Emitir el parte de asistencia para que la Mutua o Entidad Gestora pueda iniciar el reconocimiento de las

prestaciones sanitarias y económicas del accidente de trabajo.

III Un procedimiento o instrucciones de atención al accidentado y a sus familiares, que contenga la primera comunicación a realizar a los familiares a quienes se les informará sobre:

1. El hecho acontecido.


2. El Centro Asistencial al que se ha trasladado al familiar accidentado,

3. El nombre de la Mutua o Entidad Gestora responsable de la atención sanitaria y de la tramitación del accidente de trabajo.

2. ACTUACIONES INMEDIATAS TRAS UN ACCIDENTE:

Una vez se produzca el accidente de trabajo, el Responsable-coordinador, ejerciendo sus funciones, activará el protocolo de actuación con la debida diligencia, calma y premura.

LAN ISTRIPUEN PRESTAZIOAK



ZER JOTZEN DA LAN ISTRIPUTZAT?


Langile batek besteren kontura lan egitean edo lan egitearen ondorioz gorputzean jasandako edozein lesio.

LAN ISTRIPU BATEN AURREAN ZEIN PRESTAZIO ESTALTZEN DITUZTE MUTUEK?

- ||| Osasun-laguntzako prestazioak.
- ||| Langilearen aldi baterako ezintasunaren ondoriozko prestazio ekonomikoak.
- ||| Ondorioengatiko prestazioak: Baliaezintasunik gabeko lesio iraunkorren baremoa.
- ||| Ezintasun iraunkor eta heriotzagariko eta biziraupenerako prestazio ekonomikoak.
- ||| Gizarte-laguntzako prestazioak.



PRESTACIONES DE ACCIDENTE DE TRABAJO



¿QUÉ SE CONSIDERA POR ACCIDENTE DE TRABAJO?

Toda lesión corporal que el trabajador sufra con ocasión o por consecuencia del trabajo que ejecute por cuenta ajena.

¿ANTE UN ACCIDENTE DE TRABAJO QUÉ PRESTACIONES SATISFACEN LAS MUTUAS?

- ||| Prestaciones de asistencia sanitaria.
- ||| Prestaciones económicas derivadas de la incapacidad temporal del trabajador.
- ||| Prestaciones por secuelas: Baremo de lesiones permanentes no invalidantes.
- ||| Prestaciones económicas por incapacidad permanente, muerte y supervivencia.
- ||| Prestaciones de asistencia social.



ZER BARNE HARTZEN DU OSASUN LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK?

Tratamendu mediko edo kirurgiko oro, kirurgia plastikoa eta konpontzailea, errehabilitazioa, protesia eta hori berritzea, prestazio farmakologikoak eta, oro har, fakultatiboek jasandako lesioetarako beharrezkotzat jotzen dituzten diagnostiko- eta terapia-teknikak.

Istripua izan duena osasun-zentro publiko batean artatu daiteke.

Zenbat denboraz?

Egoera patologikoak eskatzen duen denbora osoan zehar, 6 hilabete arteko epean berriro gaitotzea barne, baja medikua behar izanez gero, ala ez.

ZERTAN DATZA ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN PRESTAZIO EKONOMIKOA?

Baja medikuaren aurreko hilabeteko lan-istripuen kotizazio-oinarriaren gaineko %75eko subsidioa da. Honako hau laneko baja sortzen denean jasotzen da Mutua edo Aseguru Erakunde Kudeatzailearen kargura eta soldataren ordez, hitzarmen kolektiboan hobekuntzak daudenean izan ezik.

Noiztik eta noiz arte jasotzen da?

Baja medikuaren biharamunetik alta egunera arte; baja hori pentsioa jasotzeko eskubidea duen ezintasun iraunkor sailkatu arte luzatu ahal da subsidioa, dagozkion kasuetan.

ZER DIRA ONDORIOENGATIKO PRESTAZIOAK?

Istripu batek eragindako lesio, orbain, mozketa edo deformazio iraunkorrenatik oroharreko prezioan kalkulaturako kalte-ordainak dira; horiek ez dute langilea lanerako inola ere ezgaitzen, baina bere osotasun fisikoa gutxitu edo eraldatzen dute.

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak aitortu behar ditu eta Mutuak edo Erakunde Kudeatzaileak ordaintzen ditu.

ZEINTZUK DIRA EZINTASUN IRAUNKORRENGATIKO PRESTAZIOAK?

||| **EZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA:** Langileak istripu-egunean lanbidea garatzeko zuen ohiko errendimendua gutxienez %33 murrizten duten ondorioengatik oroharreko prezioan kalkulaturako kalte-ordaina da. 24 hilabetez baja medikoaren

aurreko hilabeteko kotizazio-oinarria ematen da eta istripuaren aurreko lanarekin bateragarria da.

||| **EZINTASUN IRAUNKOR OSOA:** Lanbideko lan guztiak betetzea galarazten duten ondorio larriengatik pentsiorako eskubidea duen lehen prestazioa da. Hala ere, badago beste lanbideren batean jarduterik. Istripuaren aurreko urteko soldataren %55eko biziarteko pentsioa da, edo %75ekoa, pentsiodunak 55 urtetik gorakoa bada edo lanik ez badu. Salbuespen gisa, 60 urtetik beherako langileak oroharreko prezioan kalkulaturako zenbatekoaz ordezka dezake pentsio hori eta bateraezina da beste soldata batekin, eginkizunak ezintasuna ekarri zutenekin bat datozenean.

||| **ERABATEKO EZINTASUN IRAUNKORRA:** Edozein profesio edo lanbide betetzea galarazten duten ondorio larriengatik soldataren %100eko biziarteko pentsiorako eskubidea duen prestazioa da.

||| **BALIAEZINTASUN HANDIA:** Edozein profesio edo lanbide betetzea galarazten duten ondorio larriengatik soldataren %150eko biziarteko pentsiorako eskubidea duen prestazioa da. Honelakoetan, istripuaren ondoren hirugarren baten laguntza behar du bizitzako funtsezko ekintzetarako istripua izan duen pertsonak.



¿QUE INCLUYE LA PRESTACIÓN DE ASISTENCIA SANITARIA?

Todo tipo de tratamiento médico, quirúrgico, cirugía plástica y reparadora, rehabilitación, prótesis y su renovación, prestaciones farmacológicas, en general todas las técnicas diagnósticas y terapéuticas de las lesiones sufridas que se consideren precisas por los facultativos/as.

El accidentado puede estar atendido en un centro sanitario público.

¿Durante cuanto tiempo?

Durante el tiempo que el estado patológico lo precise, incluyendo recaídas hasta 6 meses, tanto si se precisa baja médica o no.

¿EN QUÉ CONSISTE LA PRESTACIÓN ECONÓMICA DE INCAPACIDAD TEMPORAL?

Es el subsidio del 75% sobre la base de cotización de accidentes de trabajo del mes anterior a la baja médica, que se percibe cuando se causa baja laboral por accidente de trabajo, a cargo de la Mutua o Entidad Gestora aseguradora en sustitución del salario, salvo mejoras en convenio colectivo.

¿Desde cuando y hasta cuando se percibe?

Desde el día siguiente al de la baja médica, y hasta la fecha del alta médica, pudiéndose prorrogar el subsidio hasta que se califique la incapacidad permanente con derecho a pensión, en los supuestos que proceda.

¿QUÉ SON LAS PRESTACIONES POR SECUELAS?

Son indemnizaciones a tanto alzado por lesiones, cicatrices, mutilaciones y deformidades de carácter definitivo causadas por el accidente, que no incapacitan para el trabajo de ninguna manera, pero que suponen una disminución o alteración en la integridad física del trabajador/a.

Deben ser reconocidas por el Instituto Nacional de la Seguridad Social y son indemnizadas por la Mutua o Entidad Gestora.

¿CÚALES SON LAS PRESTACIONES POR INCAPACIDAD PERMANENTE?

||| **INCAPACIDAD PERMANENTE PARCIAL:** Es una indemnización a tanto alzado por secuelas que ocasionen una disminución de al menos el 33% en el rendimiento normal del trabajador en el desempeño

de su profesión habitual a la fecha del accidente. Una indemnización de 24 mensualidades de la base de cotización del mes anterior a la baja médica y resulta compatible con el trabajo anterior al accidente.

||| **INCAPACIDAD PERMANENTE TOTAL:** Es la primera prestación con derecho a pensión por secuelas graves que impiden el ejercicio de todas labores de la profesión ejercida, pudiendo realizar otra profesión distinta. Se concede una pensión vitalicia del 55% del salario del año anterior al accidente, o del 75% si el pensionista tiene cumplido 55 años de edad y no tiene empleo. El trabajador menor de 60 años excepcionalmente puede sustituir esta pensión por una cantidad a tanto alzado y resulta incompatible con otro salario cuando las funciones coincidan con aquellas que dieron lugar a la incapacidad.

||| **INCAPACIDAD PERMANENTE ABSOLUTA:** Es la prestación con derecho a pensión vitalicia del 100% del salario por secuelas graves que impiden toda profesión o empleo.

||| **GRAN INVALIDEZ:** Es una pensión vitalicia del 150% del salario por un accidente de secuelas graves que impide el ejercicio de toda profesión o empleo y que el accidentado necesita de la ayuda de una tercera persona para hacer los actos esenciales de la vida.

ZEINTZUK DIRA HERIOTZAGATIKO PRESTAZIOAK?

Mutuak edo Aseguru Erakunde Kudeatzaileak aitortzen ditu heriotzagatiko prestazioak eta horiek dira onuradunei dagozkien prestazioak ordaintzen dizkietenak.

||| **HERIOTZAGATIKO LAGUNTZA:** Ehorzketa-gastuetarako oroharreko prezioan kalkulatu den kalte-ordaina: 42,09 € (2011ko heriotzak) gehi urteko %10 gehiago, 2012 arte.

||| **KALTE-ORDAIN BEREZIAK OROHARREKO PREZIOAN:** 6 soldata alarguntsagatik eta beste bat zurztasunagatik seme-alaba bakoitzeko (indarrean dagoen legerian jasotako adinen arabera). Alargun edo ondorengorik izan ezean, aurrekoek jaso lezakete kalte-ordaina.

||| **BIZIARTEKO PENTSIOAK:** Alarguntza (beste pentsio batzuekin bateraezintasuna dagoenean izan ezik) edo zurztasun pentsioa: soldataren %52 eta %20 adin txikiko seme-alaba bakoitzeko (indarrean dagoen legerian jasotako adinen arabera), asko jota soldataren oinarri arautzailearen %100era helduta. Senitarteko horiek egon ezean, hainbat kasutan beste ahaide batzuek izan lezakete pentsiorako eskubidea.

||| **SENITARTEKOEN ALDEKO ALDI BATERAKO SUBSIDIOA:** 22 urtetik gorako seme-alaba eta anai-

arrebentzat, pentsiorako eskubiderik ez badute eta hainbat baldintza betetzen badituzte. Istripuaren aurreko urteko soldataren %20 da eta gehienez ere 12 hileko ordaintzen dira.

***Oharra:** Hainbat hitzarmen kolektibok aseguru-polizak eskuratzeko eskubidea arautzen dute ezintasun edo heriotzagatik.*

ZER DIRA GIZARTE LAGUNTZAKO PRESTAZIOAK?

Lan-istripu batek eragindako behar-egoerei aurre egiteko laguntzak eta zerbitzuak dira; Prestazio Berezien Batzordeak aitortzen ditu laguntza hauek, behar horiek estaltzeko diru-baliabiderik ez duen eta istripua izan duen pertsonarentzat edo bere eskubidedunentzat.

Zer da Prestazio Berezien Batzordea?

Mutuako bazkide diren enpresen eta horietako langileen, eta aldi berean Mutuako babespekoak diren langileen, partaidetza-organoa da. Osaera paritarioa da, hau da, bazkide diren enpresen ordezkari-kopurua eta langileen sindikatuko ordezkariena berbera da.

Zeintzuk dira laguntzarik ohikoenak?

Mutua batetik bestera alda badaiteke ere, erakunde

hauetako gehienek ondorengo laguntza-motak ordain ditzakete:

||| **Heriotzagatiko laguntza:** Lehen beharrak, ehorzketa-gastuak eta gorpu eta laguntzaileen lekualdaketa ordaintzeko prestazio ekonomikoa.

||| **Laguntza psikologikoa:** Hildakoen senitartekoentzako edo lan-istripua izan duen pertsonarentzako tratamendu psikologikoaren gastuak.

||| **Mugitzeko laguntza:** Minusbaliatuentzako protesiak, ibilgailuak eta altzari bereziak.


||| **Etxebizitza egokitzeko laguntza:** Etxebizitzan arkitektura-oztopoak kentzeko gastuak.

||| Istripua izan duen langilearen beharren arabera, ibilgailu motordunak egokitzeko laguntza.

||| Istripuaren ondorioz, diru-sarrerak txikiagotu eta gastuak handitzearen ondoriozko laguntzak eta gutxieneko pentsioen osagarri gisa.

||| Ospitaleko tratamenduan, etxean, zaintza pertsonalean, etxeko lanetan edo laguntasuna egiteko, istripua izan duen pertsona artatzen duen pertsonarentzako laguntzak.

||| Ikasketa, prestakuntza edo berregokitze profesionalerako laguntzak.



¿CÚALES SON LAS PRESTACIONES POR FALLECIMIENTO?

Las prestaciones por fallecimiento las reconoce la Mutua o Entidad Gestora aseguradora y son quienes abonan a los beneficiarios las prestaciones correspondientes.

- ||| **AUXILIO POR DEFUNCIÓN:** Indemnización a tanto alzado para gastos de sepelio, en la cuantía de 42,09€ (fallecimientos en 2011) más el 10% anual hasta el 2012.
- ||| **INDEMNIZACIONES ESPECIALES A TANTO ALZADO:** 6 mensualidades por viudedad y 1 por orfandad por cada hijo (según edades comprendidas en legislación vigente). De no existir viudo/a o beneficiarios descendientes del fallecido, los ascendientes podrían percibir la indemnización.
- ||| **PENSIONES VITALICIAS:** Pensión de viudedad (salvo incompatibilidad con otras pensiones) y de orfandad en la cuantía del 52% del salario del año anterior al accidente y el 20% por cada hijo (según edades comprendidas en legislación vigente), con el tope del 100% sobre la base reguladora del salario. De no existir estos familiares, podrían tener derecho a pensión otros familiares en determinados supuestos.
- ||| **SUBSIDIO TEMPORAL A FAVOR DE FAMILIARES** para hijos y hermanos mayores de 22 años que no

tengan derecho a pensión y que reúnan determinados requisitos. La cuantía del subsidio es del 20% del salario del año anterior al accidente y con una duración máxima de 12 mensualidades.

Nota: por incapacidad o fallecimiento determinados convenios colectivos regulan el acceso a pólizas de seguro.

¿QUÉ SON PRESTACIONES DE ASISTENCIA SOCIAL?

Son ayudas y servicios para atender estados y situaciones de necesidad producidos por accidente de trabajo, que reconoce la Comisión de Prestaciones Especiales, a favor de los accidentados/as en el trabajo o sus derechohabientes, que carezcan de recursos económicos para cubrir dichas necesidades.

¿Qué es la Comisión de Prestaciones Especiales?

Es un órgano de participación de las empresas asociadas a la Mutua, así como de los empleados de aquellas que son a la vez trabajadores protegidos de la Mutua. Su composición es paritaria, contando con igual número de representantes por las empresas asociadas y representantes sindicales de los trabajadores.

¿Cuáles son los tipos de ayudas más habituales?

Aunque pueden variar en cada Mutua, la mayoría de estas entidades pueden abonar los siguientes tipos de ayuda:

- ||| **Ayuda por fallecimiento:** Prestación económica para atender las primeras necesidades, gastos de sepelio y traslado de cadáveres y acompañante.
- ||| **Ayuda psicológica:** Gastos de tratamiento psicológico a familiares del fallecido/a, o de la persona accidentada en el trabajo.
- ||| **Ayuda movilidad personal:** Prótesis, vehículos y muebles especiales para inválidos/as.
- ||| **Ayuda adaptación vivienda:** gastos por eliminación de barreras arquitectónicas.
- ||| Ayuda a la adaptación de vehículos a motor conforme a las necesidades del accidentado.
- ||| Ayudas por disminución de ingresos e incremento de gastos con motivo del accidente y complemento a pensiones mínimas.
- ||| Ayudas para cubrir gastos de persona que asista al accidentado/a en tratamiento hospitalario, en el domicilio, cuidado personal, labores del hogar, acompañamiento.



||| Garraio, mantenu eta ostatuaren gastuak senitartekoentzat, ohiko egoitzatik urrun dagoen zentroan ospitaleratzeagatik.

||| Gizarte Segurantzak ordaintzen ez dituen sortutako beste gastu batzuk.

Nortzuek eskatzen dute prestazioa?

||| Langileak berak (zuzenean edo enpresaren bitartez).

||| Senitarteko onuradunek.

||| Lege-ordezkariek.

ZEINTZUK DIRA ISTRIPU BATEN ONDOREN ABIAN JARTZEN DIREN MEKANISMOAK?

Enpresaburuak larrialdi eta lehen laguntzetarako plana abiaraziko du, indarrean dagoen legeria betez, aldeztu aurretik horretarako izendatutako langileen bitartez (Istripu larria izatekotan, 112 telefono-zenbakira deituko du).

Enpresak, istripua izan duen langilea kontratatuta duenak, lan-istripuaren berri izaterakoan, **jakinarazpen eta komunikazio ezberdinak egin behar ditu**, istripuaren ondorioen arabera:

||| **1.** Lantokian gertatutako istripuetan edo lanaldiko joan-etorrietan jazotakoetan, istripua izan duenaren **heriotza** eragiten dutenean; edo **larrizat** edo **oso larrizat** sailkatzen direnean, nahiz aldi berean **4 langile baino gehiagori eragiten dietenean**, langile horiek guztiak plantillakoak izanda edo izan gabe, enpresak istripuaren berri eman behar dio gertatu den probintzia edo LHko lan-agintaritzari (EAEn Laneko Lurralde Ordezkaritzei), asko jota, 24 orduko epearen buruan.

||| **2.** Istripua izan duenak istripuaren ondoren lanera, gutxienez ere, egun oso batez huts egitea eragiten

duen lan-istripuen eta birgaixotzeen kasuan, lan-istripuak babesteaz arduratzen den erakunde kudeatzaileari (GSIN) edo laguntzaileari (MUTUA) lan-istripuaren parte bidali behar die enpresaburuak, asko jota, 5 asteguneko epearen buruan. Enpresak, halaber, partearen kopia bat eman beharko dio istripua izan duen langileari edo haren ordezkariari, langilearen ordezkaria dela egiaztatzen badu.

||| **3.** Baja medikorik eragin ez duten lan-istripuen kasuan, hilean zehar baja medikorik gabe gertatu diren lan-istripuen zerrenda egin beharko du hilero enpresak, eta lan-istripuak babesteaz arduratzen den erakunde kudeatzaileari edo laguntzaileari bidali, datuei dagokien hilaren hurrengo hilabeteko lehen bost astegunetan.

ZEINTZUK DIRA ISTRIPUA IZAN DUENAK EDO BERE SENITARTEKOEK ISTRIPUAREN ONDOREN DITUZTEN BESTELAKO ESKUBIDEAK?

Administrazioak eta enpresak egindako jarduketan eta horien emaitzen berri izateko eskubidea. Hala badagokio, dagokion auzi-prozesua abiaraztekoa.

- ||| Ayudas para estudios, formación o readaptación profesional.
- ||| Gastos de transporte, manutención, alojamiento a familiares por ingreso hospitalario en centro distante al del domicilio habitual.
- ||| Otros gastos ocasionados y no indemnizables por la Seguridad Social.

¿Quiénes solicitan esta prestación?

- ||| El propio trabajador/a (directamente o a través de la empresa).
- ||| Los familiares beneficiarios.
- ||| Los representanteS legales.

¿CÚALES SON LOS MECANISMOS QUE SE DESPLIEGAN TRAS UN ACCIDENTE?

El empresario activará el plan de emergencia y primeros auxilios cumpliendo la legislación vigente, a través del personal encargado previamente asignado para su puesta en práctica. (En caso de accidente grave, llamar al 112).

La empresa, a la que pertenece el trabajador accidentado, al tener conocimiento del accidente de trabajo, **debe realizar notificaciones y comunicaciones diversas**, según las consecuencias de aquél:

- ||| **1.** En los accidentes ocurridos en el centro de trabajo o por desplazamientos en jornada de trabajo que provoquen la **muerte** del accidentado; o que sean calificados como **graves** o **muy graves**, así como los que **afecten simultáneamente a más de 4 trabajadores**, pertenezcan o no en su totalidad a la plantilla de la empresa, la empresa, debe comunicar a la autoridad laboral de la provincia o TTHH donde haya ocurrido el accidente (en la CAPV a las Delegaciones Territoriales de Trabajo), en el plazo máximo de 24 horas.
- ||| **2.** En los supuestos de accidentes de trabajo o recaídas que conlleven la ausencia del accidentado del lugar del trabajo durante, al menos, un día completo después del accidente, el empresario debe remitir

a la entidad gestora (INSS) o colaboradora (MUTUA) que tenga a su cargo la protección por accidente de trabajo el parte de accidente de trabajo en el plazo máximo de 5 días hábiles. Asimismo, la empresa debe entregar una copia del parte al trabajador accidentado o representante que tal condición justifique.

- ||| **3.** En los supuestos de accidentes de trabajo que no hayan causada baja médica, el empresario deberá cumplimentar mensualmente la relación de accidentes de trabajo ocurridos sin baja médica, y remitirla a la entidad gestora o colaboradora que tenga a su cargo la protección por accidente de trabajo en los cinco primeros días hábiles del mes siguiente al que se refieren los datos.

¿QUÉ OTROS DERECHOS TIENE EL ACCIDENTADO O SUS FAMILIARES TRAS UN ACCIDENTE?

A ser informados de las actuaciones realizadas y de sus resultados por parte de la Administración y de la empresa. A iniciar, si es el caso, el proceso judicial oportuno.



www.osalan.net

www.euskadi.net/lana • www.euskadi.net/trabajo

Euskadiko Gizarte Elkarrizketaren Lan Osasuneko Mahaiaren laguntza eta esku-hartze eraginkorrarekin.
Con la colaboración y la participación activa de la Mesa de Salud Laboral del Diálogo Social Vasco.

Administrazioa / Administración:



OSALAN
Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EMPLEO ETA GIZARTE GAITARAKO SAIALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES



euskadiko langile komisiak



Ugazabak / Asociaciones empresariales:

Confederación Empresarial Vasca
Euskal Entrepresarien Konfederakuntza

ConfeBask

ADEGI

CEBEK

SE
Empresarios
Álavese
Arabako
Enpresariak